

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

1174

EBAZPENA, 2018ko otsailaren 22koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoan sustatzen ari diren zenbait jarduerari dagokien ingurumen-baimen bateratua berrikusteko aurkeztu diren zenbait proiektu jendaurrean jartzeko dena.

1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak Kutsaduraren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen. Legearen xedea atmosferaren, uraren eta zoruaren poluzioa ekiditea da, eta, hori posible ez denean, murriztu eta kontrolatzea. Horrela, poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuko sistema bat ezartzen du, ingurumena bere osotasunean babesteko.

Aipatutako 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz, instalazioen ustia-
ketak eta funtsezko aldatetek ingurumen-baimen bateratua behar dute, baldin eta lege horren I. eranskinean jasota badaude. Ingurumen-baimen bateratuaren helburua hau da: araua bete behar duten instalazioek euren xedea bete dezaten beharrezkoak diren baldintzak ezartzea, baimena emateko parte hartu behar duten herri-administrazioen arteko koordinazioa bermatzen duen prozedura baten bitartez, betiere partikularren kargak eta izapideak arintzearen.

Beste alde batetik, aipatutako testu bateratuaren 26. artikulua baldintzak ezartzen ditu baimena eguneratzeko. Horrela, instalazioan egiten den jarduera nagusirako eskuragarri diren teknologia hobereenen ondorioak argitaratu ostean, lau urteko epemugan Administrazio eskudunak baimenerako baldintza horiek eguneratu direla ziurtatu behar izango du. Beraz, beharrezkoa izanez gero, baimeneko baldintza guztiak aldatuko dira bete beharreko eta eskuragarri diren teknika hobereenekin bat egiteko.

2014ko irailaren 30ean, Europako Batzordearen 2014ko irailaren 26ko Erabakia argitaratu zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean. Erabaki horrek eskuragarri diren teknologia hobereenen inguruko ondorioak ezartzen ditu oreka, papera eta kartoia ekoizteko jarduerarako. Erabakia Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/UE Zuzentarauak emisio industrialetarako ezarritakoaren arabera garatzen da (2014/687/UE Erabakia).

Ebazpen honen eranskinean agertzen diren enpresak daude eskuragarri diren teknologia hobereenen ondorio-dokumentuen aplikazio-eremuan.

Aipatutako 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak araututakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoan sustatu eta ebazpen honen eranskinean agertzen diren jarduerari dagokien ingurumen-baimen bateratua berrikusteko aurkeztu diren proiektuak jendaurrean jarri beharra dago.

Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Kutsaduraren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta, oro har eta bereziki, aplikagarri den bestelako legedia ikusita, hau,

2018ko martxoaren 5a, astelehena

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ingurumenaren baimen bateratua berrikusteko eranskinean agertzen diren zenbait proiektu jendurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta 30 egun balioduneko epean. Epe horretan bidezko iritzitako arrazoibideak aurkeztu ahal izango dira.

2. artikulua.– Alegazioak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

3. artikulua.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, eskaera Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz); baita Gipuzkoako Lurralde Zerbitzuan ere (Intxaurrondo kalea 70, Donostia).

Adierazitako dokumentazioa hiritarrek errazago eskura dezaten, aipatutako proiektuek dagozkien udaletara bidaliko dira horiek erakusteko jendurrean jartzeko epean.

Era berean, dokumentazioa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean izango da (<https://euskadi.eus>), herritarren eskura.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 22a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.

ERANSKINA

INGURUMEN-BAIMEN BATERATUA BERRIKUSTEA

| Instalazioa | Jarduera nagusia | Udalerría |
|-------------------------------------|---|--------------|
| Papresa SA | Egunkari-paperaren fabrikazio-jarduera | Errenteria |
| Munksjö Paper SA | Plastikozko xafladurarako diren dekorazio-paperen fabrikazio-jarduera | Berastegi |
| Cominter Tisu SL | Papera fabrikatzeko jarduera | Hernani |
| Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga SA | Paper-orea eta papera fabrikatzeko jarduera | Hernani |
| Papelera del Oria SA | Inprimatzeko eta idazteko offset papera fabrikatzeko jarduera | Zizurkil |
| Zubialde SA | Paper-orea fabrikatzeko jarduera | Aizarnazabal |